

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Joankin eta etorkin

BIDAIAIRIAK DIRA BAI, haziak. Bidaia-tzea aisiarekin eta plazerarekin uztartzen baditugu, bidaiairak ez, joankin eta etorkin baizik. Sail berriak kolonizatu behar horretan, batzuk joan eta beste batzuk etortzeko garraiobide anitz darabilte landareek fruitu artean.

Palmondoa hedatzen laguntzen duen aingira elektrikoa bezala, animalia ugari da asko uste gabeko garraiolari merke. Animalioek honela erabiltzen dituzten landareek fruta ikusgarriak, gozoak edota usaintsuak hazten dituzte. Arreta handirik gabe erreparatuta ere, erraz antzemateko moduko frutak. Itsuenak ere sudurrez adituko ditu. Eta gozoak, zalantza izpirik gabe hozkaka edo mokoka ekiteko modukoak. Gero kaketan edo zirinetan bilduta han hemen utziko ditugu fruta barruan ziren haziak. Ernatzen direnerako bakoitza bere simaur dosi politarekin.

Animalia eta landarea elkarren premian bizi dira eta batera eboluzionatzerainoko hartu eta emana



gara ditzakete. Mutualismoa esaten zaio ezkontza horri. Espainiako Doñana Parke Naturalean ari den Pedro Jordano ikertzailea, baso naturalen berreskurapenean landare eta animalia mutualistek duten garrantzia aztertzen ari da buru-belarri. *Science* aldizkariak jaso berria du AEBetako Zientzia Akademiaren hedabidean agertutako haren lanaren emaitzetako bat. Atzerabide larrian diren *Prunus mahaleb*, oilaranak, ikuskatu ditu eta DNArri segika landare bakoitzaren ama nor den jakitera iritsi da. Harrigarria bada ere, amarengandik hamazazpi kilometrora ernatu diren hazietatik sortutako oilaranak topatu ditu. Azeria, lepazuria, garraztarroa edo dena delako fruitu-jale handiren baten aho-mokotik uzkirainoko metro gutxi batzuetako bidea hamazazpi kilometrotan barrena egin ditu oilaranaren hezurak.

Masusta janaldi bikaina eginda Boston aldera abiatuko naiz ni bihar.

Irakurleak galdezka

Kaixo. Argazkian ikusten duzuen landarea handi xamarra egin zaigu. Bestalde, beheko hostoak galtzen ari da eta ez dakigu zer egin landarea kontserbatzeko. Goreneko hostoak moztu? Orain egin daiteke? Eskerrik asko.

Xabier Olano (Segura).

Kaixo Xabier. *Diefenbakia* bat da zuen landare hori. Argazkian garbi ikusten den eran, ontzi txikia du eta hor dagoen lurrean eskuera duen janariaren arabera hazi da. Landare guztiek bizitzeko etengabe hazi egin behar dute eta zeureak elikagaiak mugatuak izaki hosto kopuru jakin bat mantendu dezake. Ondorioz, hosto berri bakoitzeko zahar bat galduko du, gutxi gorabehe-

ra. Hostaje handiagoa izateko ontzi handiago batean jarri behar da, eta urari ongarri likidoa erantsi, pototan saltzen den hori eta "landare berdeentzat" jartzen duen horietakoa.

Muturra moztuta, beheagotik erraz berrituko da eta kendutako kimuak landare berriak sortzeko beste ontzi batean landatu, aise itsatsiko dira. Bestetik, itxura ederrekoa dago eta beraz bizi den tokia aproposa du. Bejondeizuela.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: Endanea Garden Center

5.000 m²ko

Barategiak loraz, zuhaitzak, zuhaitzak eta osagarriak betea.

Zatoz udazkeneko koloreak ikustera

Atzeratik sartzea: 8:00etatik 20:00etara
Igandak, ospetuek eta jaiegarriak: 8:00etatik 14:00etara

Alameda Auzoa 40, 14-1 (Euzko Herriko Unibertsitatea)

20200 Haranburua • Tfnoa: 943 641 710

www.endanea.com